

Apartamentuak adinekoentzat - Betekizunak

Donostian bizitzea edo lan egitea

- Donostiarekin lotuta egotea eskatzen da, bertan bizitzeagatik edo lan egiteagatik:
 - **Bertan bizitzeagatik;** beharrezkoa izango da Donostian gutxienez bost urte osotan bizi izana azken hamar urteetan.
 - **Bertan lan egiteagatik;** beharrezkoa izango da azken hamar urteetan Donostiako enpresa batekin lan-lotura eduki izana.
- Adierazitako aldi guztiak eskaerak jasotzeko mugako gisa ezarritakoaren aurreko datatik aurrera zenbatuko dira.
- Udalerri horretan bizi izateko betekizuna egiaztatzeko, Udal Erroldako datuak hartuko dira kontuan. Lana, berriz, lan-bizitzaren eta lan egiten den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu ahal izango da.